

## Fakultateko lankide eta lankide ohiek jai batekin borobildu dute erakundearen 40. urteurrena

2017/06/19

Ekainaren 17an, larunbata, bilkura bat egin zuten Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko lankide eta lankide ohiek. Ekitaldiaren helburua zen jai giroan ospatzea erakundearen 40. urteurrena. Lankide eta lankide ohiekin batera, haien senideek eta lagunek ere hartu zuten parte. Guztira, 150 lagun baino gehiago elkartu ziren Eskoriatzako campusen egindako jaietan.


Goizean zehar ekitaldi ugari antolatu zuten: aurkezpenak, antzezpenak, errezitaldiak, musika, dantza... ekitaldi gehienak lankideek eurek egindakoak. Umeek ere izan zuten aukera egunez gozatzeko Ibarraundi Museora egindako bisitaldiarekin.

Eguerdiaren egindako luntx batekin bukatu zen jai bilkura.

Egunean egindako argazki karrusela:



Kantu propioa ere izan zuen jaiak, izan ere, Ane Zuazubiskar Ikus-entzunezko Komunikazioa Graduko ikasleak eta D'Capricho taldeak fakultatearen 40. urteurrenara eskainitako kantua bidali zuten ekitaldira:



Goiz osoko jaiak izan zuten lankideek eta beraiek senideek.